



Mahai jokoen hiriburu bihurtuko da Amorebieta-Etxano asteburu honetan Jokoan-En Juego jaialdiari esker

- **Mahai jokoen zaleentzako ezinbesteko hitzordu bihurtzeko xedea duen jaialdi honen helburu nagusia da familiei jolas-aisialdirako aukera eskaintzea, aisiarako honelako jarduerekin aldezturik izan nahi izan ez.**
- **Jaialdiaren aurreko edizioan 637 pertsonak eman zuten izena eta 1.000 bisitatik gora zenbatu ziren.**
- **Espainiako Urteko Jolasa 2011 sarirako hautagaiak aurkeztuko dira jaialdian, bai eta Spiel des Jahres 2011ko irabazleak ere.**
- **Bertaratzen direnek 100 mahai joko ezberdinetik gora bilduko dituen ludotekaz gozatzeko aukera izango dute.**
- **Scalextric erraldoia ere izango da erabilgarri. Sei lehiakidek jardun ahalko dute aldi berean. Aurreratzeak egin ahalko dira, edota birak zenbatu, eta erregaia ere izango da.**

Amorebieta-Etxano, 2011ko azaroaren 30a. Asteburu honetan, abenduak 3 eta 4, Mahai Jokoen Jokoan – En juego Jaialdia gauzatuko da bigarren urtez Amorebieta-Etxanoko Zelaieta zentroan.

Mahai jokoen zaleentzako ezinbesteko hitzordu bihurtzeko xedea duen jaialdi honen helburu nagusia da familiei jolas-aisialdirako aukera eskaintzea, aisiarako honelako jarduerekin aldezturik izan nahi izan ez.

Jaialdiaren aurreko edizioan 637 pertsonak eman zuten izena eta 1.000 bisitatik gora zenbatu ziren.

Amorebieta-Etxanoko Udalak, Zornotzako Forjadores kultura elkarteak eta kultur proiektuetarako Grupo Hal izeneko koordinadorak (Bilbo) antolatutako jaialdia da.



Egitaraua

Jaialdia abenduaren 3an eta 4an izango da, larunbatean eta igandean hain zuzen, goizeko 11:00etatik eguerdiko 14:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik gaueko 21:00etara.

Jolaserako lau sail berezitu aurki ahalko dira jaialdi honetan: arlo tematikoak, familia-arloa, jolas askerako arloa eta miniaturei eskainitako arloa.

➤ Arlo tematikoak.

Bertan jolasteko mini – ludotekak sortuko dira. Bakoitzean 4 - 6 joko izango dira, etengabe zabalduz, bertaratzen direnek ikus ditzaten. Kudeaketarako erakusle bat ere izango da.

Honakoak dira aurtengo arlo tematikoak:

Logika jokoak eta puzzleak

Banaka edota lagun gehiagorekin batera, puzzleak egiteko eta logika-erronkei erantzuteko proposamena egiten duten jolasei eskainia.

Birentzako jokoak

Arlo hau klasikoa da jadanik, eta jendeak hala eskatzen duelako errepikatzen da. Bi jokalarirentzako hainbat aukera izango da bertan.

Urteko Jolasarentzako Saria

Espainiako Urteko Jolasa 2011 sarirako hautagaiak aurkeztuko dira jaialdian, bai eta Spiel des Jahres 2011ko irabazleak ere (Alemaniako saririk garrantzitsuenak mahai-jokoen alorrean).

Euskararen sustapena

Euskaraz plazaratutako jokoei eskainitako arloa.



➤ **Familia arloa**

Garrantzi berezia eman zaio oraingoan *familia arloari*, aintzat hartuta iazko edizioan lortu zuen arrakasta, eta bikoiztu egingo da jokoaren eskaintza. Txikienak ere dibertitzeko jokoak bilduko dira bertara. Familia guztia aritzeko aukera eskainiko da arlo honetan, 4 eta 12 urte bitarteko bisitariarentzako jolasak izango baitira. Txikientzat eta beraiekin datozen gurasoentzat edo zaintzaileentzat estimulagarri diren jokoetan jardun ahalko da. Hiru begirale espezialista izango dira uneoro arlo honetan, gurasoei jokorik egokienak gomendatzeko.

Joko erraldoiak, denentzat egokiak direnak ere, ezarriko dira arlo honetan.

➤ **Jolas askerako arloa eta ludoteka**

Jaialdiaren erdigunea da ludoteka. Bakarrik, familiarekin edota adiskideekin jolasteko pentsaturik eta diseinaturik dagoen espazioa da.

Honakoak burutuko dira esparru honetan:

Jokoaren mailegua

Hastapen-partidak ez ezik, mostradore zentrolean eskatu ahalko diren 100 titulu baino gehiago jarriko zaizkie erabilgarri bertaratzen direnei alderdi honetan. Bertan egongo diren begiraleek aholku emango diete, edadearen eta gustuen arabera, jolas berrietan aritzen ikasteko interesa erakusten dutenei, ezezagunak zaizkien jolasak ere erakutsita.

Hastapen-partidak eta erakustaldia

Hainbat jolasetan hasteko partidak izango dira egitarauan, bertaratzen direnek jolasten ikas dezaten. Begiraleak arduratuko dira jolasten irakasteaz, arauak zein diren esateaz gain, mugimenduak eta estrategiak iradokiz. Horri esker lehenengo momentutik gozatuko dira jokalariek jolasaz.



Txapelketak

Programatuta dauden txapelketak ere arlo honetan burutuko dira.

➤ **Miniaturen arloa**

Borrokatxo futuristetan aritzeko joko taktikoa den Infinity jolasari ekiteko partidak gauzatu ahalko dira arlo honetan.

➤ **Bestelako jarduerak**

Jarduera osagarria dauka jaialdiak, mahai jokoekin lotuta ez dagoena:

Scalextric

Scalextric erraldoia ere izango da erabilgarri. Sei lehiakidek jardun ahalko dute aldi berean. Aurreratzeak egin ahalko dira, birak zenbatu eta erregaia ere izango da.

www.amorebieta-etxano.net

VKComunicación

Para más información:

Nora Arriola

Tfno: 944 01 53 06. Móvil 646 22 13 01

E-mail: nora@vkcomunicacion.com